

MERTXE ETXEBERRIA HERNANIKO ALKATEA

## “Hernaniko baliabideak herritarren egoera hobetzeko erabili nahi ditugu”

“Udala herritarrei zabaldu” izana nabarmendu du. Udala, zerbitzu enpresa bezala, “asko meioratu behar da”. Egoera politikoa “izugarri zaildu da”.



Mertxe Etxebarria, Hernaniko alkatea.

Kronika Hernaniko udal taldeak elkarrizketa-tzen ari da udal jesiorearen inguruan. Gaur, Hernaniko alkatearengana jo dugu. Mertxe Etxebarria, EHko zerrenda buruak, gehiengo osoz hartu zuen alkatetza iazko uztailean.

### ■ Badaramazkizue 15 hilabete udal gobernuan. Zein balantze egiten duzue?

Udala hartu genuenean, herria eta udalaren arteko harremana oso txarra zen. Saiakera handia egin dugu eta harreman hori hobetzea eta zabaltea lortu dugula iruditzen zait. Orduz gero, gure funtzionamenduan aldaketa eta ajustek izan dira; oraindik ere, izan beharko dute, udalaren martxa hobetzen jarraitzekotan. Bestalde, parte hartzea bultzatu dugu. Aurtengo aurrekontuak, muga baten barruan, baina, herritarrek egingo dituzte. Jendea ez da oraindik erabat jabetzen pauso horrek zenbateko garrantzia duen.

### ■ Aurrekontu parte hartzeetan ez al dira herritarrak

### galdu samartuta ibili?

Hasieran aurrekontuen pape-retan galtzea normala da. Bide honek urteetan segi behar du aurrera herritarrek udalaren funtzionamendua ondo ulertzeko. Jendeak iritziak emateaz gain, erabaki bakoitzak osotasunean zein ondorio izango duen jakitea komeni da. Helburua azken hitza herriak izatea da.

### ■ Oposizioak arau subsidiarioak eztabaidara ez ateratzea leporatzen dizue.

Une honetan, indarrean dauden arau subsidiarioak berriak dira, 1996an onartuak. Oraindik, eraikitze eta desarrolatzeko nahiko lurra badago, eta guk ez dugu presarik arau berriak egiteko; aurretik, estudio zorrotz bat egin nahi dugu. Presa agian, lur jabeek dute, helburu jakinekin lurra erosi dituztenek... euren interesei begiratzen diete-eta.

### ■ Etxebizitzen inguruan zein asmo dituzue, eta zertan ari zarete?

Hernanik ez ditu Donostiako hutsuneak bete behar. Herria

ixtea ez da gure helburua, baina, bai Hernaniko baliabideak bertako bizimodua hobetzeko erabiltzea: babes ofizialeko etxebizitzak egitean herritarrentzat orain artean baino gehiago izatea nahi dugu. Jaurlaritzan hori negoziatzen ari gara. Obretako plusbaliak dirutan kobratzen ziren lehen; guk aldiz, lurra nahi ditugu herritarrentzat, babes ofizialeko etxeak egiteko. Horretarako udalaren patrimonioa haunditu egin behar dugu lehendabizi.

### ■ Aurrera begira, zein proiektu garrantzitsu ditu udalak?

Alde Zaharreko berritze lanen lehen fasea laster hasiko da; udaletxeari fatxada berri eta iluminazio berria jarriko zaio; etxebizitzaren inguruan ikerketa bat egiten ari gara etxebizitza hutsak eta herriko demanda zein den ikusteko; kanposantua berri eta haunditu egingo da; Txantxilako aparkalekua aurrera doa; euskera arloko akordioetan salto handia eman da herrian eta hortik segi nahi dugu... □

### ESANDA BEZALA

■ “Alkatetza hartu genuenetik egoera politikoa asko gogortu da; gure eguneroko lana ere bai: erabakien gaineko errekursoak, Audientzia Nazionaletik pasa beharra...”

■ “Oposizioak lan gutxi egiten du. PSE-EEkoak ez dira batzordeetara agertzen, eta PNV-EAkoak, batzuetan bakarrik.”

■ “Momentuan diferentzia handiak daude, baina, abertzaleak elkar ulertzera behartuta gaude.”

■ “Udal gobernuan bi liberatu oso eta bi erdi gaude orain. Irailarte ni bakarrik nongoen liberatuta.”

ALBOKARI TOPAKETA HERNANIN

## Euskal Herriko albokari onenak Hernanin dira gaur

Denera, 100 inguru etorriko dira eta 12:00etan Albo-kaldia egingo dute Tilosetan (euria bada, Biterin).



Herriko albokari batzuk, Topaketa San Joanetan egiten zenean.

BAT baino gehiago alboka soinuarekin esnatuko da gaur. 10:30etan elkartu eta 11:00-etan abiatuko dira herrian barrera. Punta-puntakoak gurean izango dira gaur: Ibon Koteron bera (lehenengo alboka diska egin duena); eta beteranoak ere bai: Etxebarria bizkaitarra, 80 urte bete; Emilio Sagarna, eta Txilibrin historikoa. Denak ibiliko dira alboka jotzen gure kaleetan barrera.

### HERNANIKO ESKOLA

Bilduko diren ehunetatik bertakoa izango da koadrilarik handientsuna. Beltranek esan digunez, alboka ikasi eta zabalteko eskolarik fuertena Hernanikoa baita. Musika eskolan alboka jotzen ikasi dutenak 50 inguru dira; horietatik dozena bat ibiltzen da herriz-herriz jotzen. Gaurkoa, eta gero, Zal-dibin dute zita datorren igandean, Ardi egunean. □

EREÑOTZUKO KULTUR ASTEA

## Senda belar erakusketa, gaztain jana eta sagardoa azken egunerako

60 senda belar klase jarriko dira. Hasi, bostetan.

EREÑOTZUKO XII Kultur Asteak azken eguna du gaurkoa. Azkena, eta orain artean behintzat, politena atera izan dena. Iaz argazki erakusketa egin zuten. Atzo, eguraldiak gehiegi lagundu ez, eta gaur ere senda belar bila arituko dira. Pintura tailerra ere euriagatik suspenditu egin zuten. Noiz egingo den jakinaraziko dute antolatzaileek.

### BERTAKO SAGARDOA

Erakusketarenaz gain, sortu da beste ohitura bat ere: bertako sagardo probaketa. Denera, zazpi bat sagardogile: Txokolatene, Alkatxuin, Trini, Lataxe, Goienetxe, Larrain eta Lastaola Goikoa. Larraingo bixkiak, gaztainak erretzen (atzo, zazpi andre, azala kentzen). Eta giroa berotzeko, Leire eta Itxaso trikitilariak. □

ADARRAGA

Konfitegia  
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7  
943 55 09 10





## KIROL ESKOLARRA HERNANIN

# 1000 ume inguru arituko dira aurten ere 20 bat kiroletan

Asteburu honetan eta datorrenean hasiko dira gehienak. Kirol eskolarra bultzatzeko hitzarmena, lau ikastetxeak, udala eta foru aldundiaren artekoa da.



Korri neska-mutilak, denboraldia hasi da-eta!

“KIROL Eskolarraren helburua da parte hartu nahi duten umeek kirol guztiak ezagutu eta ondo pasatzea” esan digu Manolo Aierbek, arduradunetako batek. Hernaniko lau ikastetxeetako (Urumea, Langile, Elizatxo eta Inmaculada) umeak arituko dira orain hasi eta maiatzeko azken astebururarte; kirol batean ez bada, bestean, 80 monitorea gidatuta.

### BENJAMINAK

3 eta 4 mailako umeek, ez dute kirola eurak aukeratzen. Batean eta bestean arituko dira; horrela 2 kurtsotan 9 kirol egingo ditu ume bakoitzak.

### ALEBINAK

5 eta 6 mailakoek berek aukeratzen dituzte gustoko kirolak (2 edo 3), boladaka bat edo beste egiteko.

### INFANTILAK

DBHkoek urte osoko ligak izaten dituzte; inor behartzen ez bada ere, umeek normalean kirol bakarra egiten dute.

Kadeteak, kasu gehienetan, Kluben eskutik aritzen dira, federatuta.

Plangintza honekin modu organizatu eta kontrolatuan egiten da kirola, gurasoak entrenaizale izan beharrik gabe...□

## PELOTA (2.MAILAKO LAUTERDIKO TXAPELKETA)

# Esnal final laurdenetan sailkatu da Telleriari 22-12 irabazita

Ostiral gauean, zozketaz lortu zuen Esnalek Besagaini txapelketarako dagozkion postuetatik bat.

IÑAKI Esnalek asko estutu gabe irabazi zuen ostiraleko partidua Hernanin. Telleriak, iaz *Lauterdiko* txapelketa bikaina egin bazuen ere, ez zuen oso ondo jokatu; Esnalek aldiz txukun: partidu erdirarte botez eta dejada ederrak egin da, eta nekatu zenean airez (airez ez zuen dakiena erakutsi).

Esnalek, beraz, 2.mailako *Lauterdiko* txapelketa jokatu du. Gainera, lehen kanpo-

raketa zozketa bidez gainditu du, eta zuzenean final laurdenetan hasiko da. Hernanin jokatu du azaroaren 3 edo 4an Murumendiaraz eta Badiola IIIak jokatu duen partiduko irabazlearen kontra.

### GIPUZKOAKO OPENA

Ostiraleko beste partidua Gipuzkoako Openekoa zen. Josu Oiak Esnalen ordezkari jokatu zuen Laskurainekin,

eta baita irabazi ere Huizi eta Alonsori. Partidu hau irabazita finalean dira Esnal eta Laskurain, Oiakaren laguntza eta guzti. □

**Jatetxea**

**Venta Berri**  
Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18  
LARUNBATETAN ITXITA

**Hernaniko Kronika Interneten**  
[www.hkronika.com](http://www.hkronika.com)

**Allianz**

ASEGURUAK  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA  
Tel.: 943 557 326  
656 735 109

## HITZ BITAN



Hernani errugbi taldea, partidua jokatzen prest.

### ✓ ERRUGBIA

**Hernaniko taldea Durangokoaren kontra gaur Landaren.** Partidua 11:30etan jokatuko da. Lehen bi partidua, justu bada ere galdu egin dituzte hernaniarrek, eta komeni zaie gaur punturen bat ateratzea.

### ✓ FUTBOLA

**Zuri berdeak Ondarrura doaz gaur hirugarren garaipenaren bila.** Azken bi partidua irabazita moralez oso ondo daude hernaniarrak, eta gaur hiru puntuak eskuratzera irtenko dira ondarrutarren zelaira. Ondarrukoa ez da irabazteko zelai erreza, baina Sestaokoa gogorragoa zen eta lortu zuten helburua.

### ✓ NAFARROA OINEZ

**Bi autobus irtenko dira gaur goizeko bederatzietan Atsegindegitik.** Aurtengo Nafarroa Oinez Zizur Txikiko San Fermin ikastolak antolatuta du; ibilbidea Iruñerri inguruan izango da, beraz. Autobusak, berriz, Dobera Euskara Elkartek jarri ditu, urtero bezala. □

## GAURKO PARTIDUAK

### ■ FUTBOLA

**3.maila**  
Zaldunen 17:00etan.  
Ondarra - **Hernani**  
**Emakumezkoen Liga**  
Zubipen 12:00etan.  
**Hernani** - Ordizia  
**Gorengo Maila**  
Zubipen 17:00etan.  
**Hernani** - Elgoibar

**Gazteen Ohorezko Liga**  
Galen 10:45etan.  
Mariño - **Hernani**  
**Kadeteen Ohorezko Maila**  
Zubipen 10:30etan  
**Hernani** - Lehengoak

### ■ ERRUGBIA

**I Liga Nazionala**  
Landaren 11:30etan.  
**Hernani** - Durango

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 557750

### ✚ FARMAZIAK

▶ Egunez: Sagastiberri Urbieta, 7  
☎ 943 552941  
▶ Gauez: Ansa Andoain, Ondarreta  
☎ 943 591302

**SANTA BARBARA**  
PEUGEOT  
Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15  
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

### AUKERAKO AUTOAK

|  |       |
|--|-------|
| Peugeot 205 Diesela - 5 ate                  | SS-AW |
| Peugeot 405 Haize egokitua                   | SS-AP |
| Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua       | SS-AB |
| Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua     | SS-AG |
| Citroen AX Diesela - 5 ate                   | VI-L  |
| Ford Escort Diesela                          | SS-AK |
| Opel Astra 'Caravan' Diesel                  | NA-AJ |
| Opel Astra Diesela 5 ate                     | SS-AT |
| Opel Corsa 'Don Algodon'                     | SS-AF |
| Opel Kadett 1.3 - 4 ate                      | SS-AH |
| Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa | SS-AV |
| Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'                 | SS-AH |
| Renault Expres Diesel                        | SS-AS |
| Suzuki 'Todo terreno'                        | NA-V  |

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...